



1- Trebakuntza Teknologikoa eta Enpresen I+G-a sustatzea

Eusko Jaurlaritzaren laguntza-programak ¹	Beste babes-tresna batzuk
<p><u>Zeharkako programak</u></p> <p>HAZITEK (EGJIS): I+Gko enpresa-proiektu estrategikoak edo lehiakorrek babestea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planaren espezializazio adimenduneko arloetan emaitza- eta inpaktu-potentzial handia dutenak (RIS3 arloak).</p> <p>BASQUE INDUSTRY 4.0 (EGJIS):</p> <p>(EGJIS): I+Gko proiektuak babesteko laguntza- programa, “hornitzaile teknologikoen” (adibidez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileen) teknologia-transferentzia industria- eta zerbitzu-enpresa aurreratuetarantz bideratuko dutenak. Proiektu horiek erakuste-efektua izan behar dute, eta, beraz, elektronikaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologietako I+Gko proiektuen emaitzak merkatura azkarrago transferitzeko aukera eman behar dute.</p> <p>ADIMEN ARTIFIZIALA (EGJIS): Enpresetan adimen artifizialean oinarritutako zerbitzuak eta/edo soluzio komertzialak aplikatzeko proiektuak babestera zuzenduko den laguntza-programa; erakusteko efektua izango dute eta Euskal Autonomia Erkidegoan teknologia horren eskaintza eta eskaria aktibatzen lagunduko dute, enpresen lehiakortasuna hobetze aldera.</p>	<p><u>Jakintza eta Teknologia azpiegiturak</u></p> <p>BASQUE DIGITAL INNOVATION HUB (EGJIS): Aktiboen sare konektatua eta prestakuntza, ikerketa, testatze eta balidaziorako azpiegitura, industriako enpresa txiki eta ertainei 4.0 industriaren erronkei aurre egiteko beharrezko gaitasun teknologikoak ematen dizkiena.</p> <p>TEKNOLOGIA AERONAUTIKOKO ETA EOLIKOKO FABRIKAZIO-ZENTRO AURRERATUAK (BFA, GFA, EGJIS eta hainbat): Teknologia aeronautikoak eta eolikoak baliozkotzeko eta erakusteko azpiegiturak, hurrenez hurren.</p> <p>BIMEP (BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM) (EGJIS eta hainbat):</p> <p>Itsas energiako teknologiak eta gailuak (olatuen bihurgailuak eta itsaso zabaleko <i>offshore</i> aerosorgailuak) erakusteko eta baliozkotzeko azpiegitura.</p> <p>4GUNE (HS): Lankidetzaren sistemikoko azpiegitura, euskal RIS3ren agertoki berrian Unibertsitatearen eta Enpresaren arteko lankidetzaren sendotze dardinean, betiere lankidetzaren ereduak eta baterako sorkuntzako mekanismoak inplementatuz (gaitasunen mapa, adimen teknologikoen mugaz</p>

¹ EGJIS: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila; OS Osasun Saila; HS: Hezkuntza Saila; AFA: Arabako Foru Aldundia; BFA: Bizkaiko Foru Aldundia; GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia



1- Trebakuntza Teknologikoa eta Enpresen I+G-a sustatzea

ENPRESEN 5G (EGJIS): 5G teknologiak ezartzeko proiektuak babestea helburu duen laguntza-programa. Enpresetan 5G teknologiaren ezarpena bizkortzeko proiektu horiek ekonomiaren trantsizio digitala ahalbidetuko dute enpresa-arloaren barruan, eta proiektu horiek egikaritzeak antzeko proiektuetarako erakusle gisa balioko du. Proiektu horiekin lotzen diren erabileretan, aintzat hartu beharko da merkatuan eskuragarri dauden eta enpresen jarduera operatiboan aplikatu daitezkeen 5G soluzioak/teknologiak ezartzea.

Programa sektorialak

ITSAS ENERGIEN ERAKUSKETA (EGJIS): Gorabidean dauden itsas energiako teknologia berriztagarriak erakusteko eta baliozkotzeko inbertsioetara zuzendutako laguntzak.

BALIOSASUN (OS): Osasun-sistemaren ikerketa, garapen eta berrikuntzako (I+G+b) emaitzen balorizazioa, sistema hori enpresa-sarean ezar dadin edo transferi dadin sustatuz.

BERRIKER BERRIA (EGJIS): Nekazaritza, elikadura eta arrantzaren sektoreetako ikerketa, garapen eta berrikuntzarako (I+G+b) laguntzak.

gaindiko laborategia, unibertsitatea+enpresa programa).

BKA (BFA eta hainbat): Automozioaren sektoreko berrikuntza kolaboratiboko azpiegiturak.



2- ENPRESA-BERRIKUNTZAKO EKOSISTEMA BABESTEA

Eusko Jaurlaritzaren laguntza-programak ²	Beste babes-tresna batzuk
<p><u>Zeharkako programak</u></p> <p>INNOBIDEAK (KUDEABIDE, LEHIABIDE, PERTSONAK) (EGJIS): Enpresen lehiakortasuna hobetzen duten proiektuak babestea, produktuetan eta negozio-prozesuetan berrikuntzak sartuz, enpresa-dimentsio handiagoa emanez, balio-kateetan elkarlanean arituz, kudeaketa aurreratuko ereduak bultzatuz eta pertsonen enpresan parte har dezaten sustatuz (<i>Eusko Jaurlaritzaren eta 3 foru-aldundien arteko lankidetzeta-programa</i>).</p> <p>HAZINNOVA (EGJIS): Enpresa txikietan berrikuntza ez-teknologikoko premiak identifikatzeko eta soluzioak ezartzeko aholkularitza teknikoko zerbitzuak.</p> <p>INDUSTRIA DIGITALA (EGJIS): Enpresen lehiakortasuna hobetzera zuzentzen diren elektronikaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak enpresasarean txerta daitezen babestea.</p> <p>INPLANTALARIAK (EGJIS): Transformazio digitalari ekiteko mikroenpresentzako aholkularitza teknologikoa, haien lehiakortasuna hobetzen lagunduko duten elektronikaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologien neurria egindako ezarpen praktikoaren eta pertsonalizatuaren bidez.</p> <p>INDUSTRIEN ZIBERSEGURTASUNA (EGJIS): Enpresen zibersegurtasuna hobetzeko proiektuak babestea, babes-sistemen konbergentzia eta integrazioa sustatuz, sarbideen eta informazioaren segurtasuna</p>	<p><u>Babes plataformak eta zerbitzuak</u></p> <p>BIND4.0 (EGJIS): Goi-mailako euskal trakzio-enpresa bezeroetara nazioarteko <i>start-up</i> teknologikoak sartzen direla bermatzen duen azeleratzailea, betiere teknologia txertatzeko proiektuen eta soluzio berritzaileen bidez.</p> <p>BERRIKUNTZAKO EROSKETA PUBLIKOA (Hainbat): Eskariaren aldetik merkatu berritzaile berrien garapena indartzera zuzentzen den enpresa-berrikuntza sustatzea, kontratazio publikoko tresnaren bidez.</p> <p>MEDTECH (OS): Osasun Sistema Publikoak euskal enpresen berrikuntza babestea, osasun-teknologiak balioztatze eta frogatzeko prozesuetan lagunduz.</p> <p>TKGUNE (HS): Lanbide Heziketako ikastetxeetatik enpresen berrikuntza teknologikoa babesteko ingurune estrategikoa, betiere jakintzaren transferentzia eta lehiakortasunaren hobekuntza bultzatuz.</p> <p>INNOSASUN (OS): Euskal osasun-sistema publikoaren eta euskal industriaren arteko lankidetzeta artikulatzen duen berrikuntza babesteko tresna.</p> <p>BASQUE ECODESIGN CENTER (EGJIS eta hainbat): Enpresen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko ekimen publiko/pribatua, ekonomia</p>

² EGJIS: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila; OS: Osasun Saila; HS: Hezkuntza Saila; LPEGS: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila; KHPS: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila



2- ENPRESA-BERRIKUNTZAKO EKOSISTEMA BABESTEA

sustatuz, estandarretara egokitzea bultzatuz eta abar.

Programa sektorialak

ARRANTZAREN ETA AKUIKULTURAREN SEKTOREARENTZAKO LAGUNTZAK (EGJIS):

Berrikuntzaren bidez, arrantza eta akuikultura lehiakorrak, ingurumenaren arloan jasagarriak, ekonomikoki bideragarriak eta sozialki arduratsuak sustatzera zuzendutako inbertsioetarako babesa.

LANDA-GARAPENeko

PROGRAMAZIOAREN LANKIDETZA-

NEURRIA (EGJIS): Berrikuntza-proiektuak babestea, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako elikagaien eta landa-ingurumenaren sektorearekin elkarlanean, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren bidez (FEADER).

EKONOMIA ZIRKULARREKO

EKOBERRIKUNTZAKO PROGRAMA (EGJIS):

Ekodiseinuaren, ekonomia zirkularreko erakusketaren eta ekoberrikuntzaren arloetan proiektu berritzaileak egiteko laguntzak.

BERRINGURUMENA (EGJIS):

Ingurumenaren gaineko inpaktuak, batik bat berotegi-efektuko gasekin zerikusia dutenak, murriztera eta klima-aldaketara egokitzea zuzentzen diren berrikuntzako eta erakusketako proiektu pilotuak garatzeko laguntzak.

BAI+D+I (LPGES):

Hiri-birsorkuntza integralaren esparruan proiektu berritzaileak garatzeko laguntzak, "hiri-habitataren" RIS3 aukera-lurraldearen helburuei lagunduko dietenak.

KSI BERRITZAILE (KHPS): Euskal Kultura eta Sormen Industrietako enpresak babestea,

zirkularraren arloan ekodiseinuko proiektu berritzaileak

kontzeptualizatzen eta egikaritzera zuzentzen dena. Barnean hartzen du ekodiseinuaren arloko prestakuntza espezializatuta dagoen *Basque Ecodesign Hub* ekimena.

BASQUE DISTRICT OF CULTURE AND CREATIVITY (KHPS):

Kultura eta Sormen Industrien Euskal Barrutiaren garapena bultzatzea helburu duen tresna estrategikoa.



2- ENPRESA-BERRIKUNTZAKO EKOSISTEMA BABESTEAK

berrikuntza teknologikoaren, antolaketa-ereduaren eta enpresa-egituraren arloetako proiektu berrietarako aukeraguneak sortu eta gara daitezzen.

Foru Aldundien laguntza-programak:

BERRIKUNTZA ETA INBERTSIO AURRERATUA SUSTATZEKO 2i PLANA (BFA): Enpresek lehiatzeko, berritzeko eta teknologikoki aurreratuak diren inbertsioak egiteko duten gaitasuna, beren ingurunean modu iraunkorrean eta integratuan, handitzera zuzentzen diren laguntzak.

BERRIKUNTZA, NAZIOARTEKOTZEA ETA INBERTSIOA OSO-OSORIK LAGUNTZEKO 3i PROGRAMA (BFA): Enpresen lehiakortasuna handitzen duten eta inpaktu-ahalmen handia duten proiektuak babestea, berrikuntzan, nazioartekotzean eta inbertsioan eragina duten ekintza integralen bidez.

ENPRESA BERRITZAILE BERRIAK (BFA): Enpresa berritzaileak sortzeko eta abian jartzeko sustapena.

ENPRESA-TXANFORMAZIOA SUSTATZEKO PROGRAMA (GFA): Enpresa gaitasunak, bereizketa eta dibertsifikazioa modu adimentsuan aplikatzeko proiektuak babestea, produktu, zerbitzu, merkatu eta/edo negozio-eredu berri edo hobetu bihurtuz.

ARABA INNOVA (AFA): Proiektu eta/edo ekintza berritzaileak babestea (produktuan, ekoizpen-prozesuetan, antolakuntzan, marketinean eta merkatuetan, eta abar), ekonomiaren modernizazioari, produktibitatea handitzeari eta ekoizpen-sarearen lehiakortasuna hobetzeari laguntzeko.

PARTAIDETZA (GFA): Pertsonen enpresetan parte har dezaten sustatzea, parte-hartze hori erraztuko duten antolaketa-ereduak sustatuz eta, antolakuntza eredu horiekin, enpresen garapena erraztuko duen ekosistema sustatuz.

ADINBERRI (GFA): Zahartze osasuntsuaren, sistema sozio-sanitarioaren bikaintasunaren eta arlo horretako industriak duen lehiakortasunaren alorrean eragina izan dezaketen ikerketa, garapen eta berrikuntzako jarduerak babestea.

TXEKINTEK/BARNETEKIN (GFA): Oinarri teknologikoko enpresen eta/edo enpresa berritzaileen sorrera babestea, bai ekimen pertsonalekoak, bai barne-ekintzailtza korporatibokoak.

ARABA EKINEAN (AFA): Araban enpresa berriak sortzeko laguntzak eta ekintzailtzarako laguntzak, bereziki berritzaileak eta hazkunde handikoak direnak.

SMART MOBILITY INDUSTRY (GFA): Enpresaren transformazioa bultzatzeko babesa, betiere enpresaren jarduera elektromugikortasunarekin, energia biltegitratzearekin eta ibilgailu autonomoarekin zerikusia duten negozio-hobi berrietara bideratuz.



2- ENPRESA-BERRIKUNTZAKO EKOSISTEMA BABESTEAK

GIPUZKOA INDUSTRIA 4.0: PRODUKTUEN ETA ZERBITZUEN GARAPENA (GFA):

Fabrikazio Aurreratuaren eta Industria 4.0aren merkatura bideratutako produktu, teknologia edo aplikazio berriak garatzeko proiektuak babestea.

ELKARLANEAN (BFA): Enpresen arteko lankidetzaren arloko berrikuntza sustatzea.

BIZKAIA SORTZAILEA (BFA): Lehendik dauden edo sortu berriak diren enpresa sortzaileetan proiektu berrien garapena sustatzea, lurraldean enpresa sortzaileen sektore indartsua finka dadin.

TXEKEO TEKNOLOGIKOAK (BFA): Eragile teknologia baten aholkularitza, enpresak bere produktu edo prozesuetako batean atzemandako arazo baten inguruko aholkuak emateko.

FABRIKAZIO AURRERATUKO GIPUZKOA 4.0 SAREA: BONU TEKNOLOGIKOAK (GFA):

Enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza sustatzeko diru-laguntzak, Fabrikazio Aurreratuaren eta Industria 4.0ren eredia txerta dezaten eta beren posizionamendu teknologikoa hobeto dezaten, «bonu teknologikoak» emanaz.

EKINTZAILETZA ETA GIZARTE-BERRIKUNTZA (BFA): Enpresa edo gizarte-erakunde berritzaileen proiektu berriak abian jar daitezzen babestea eta Bizkaian enpresa berritzaile berrien sorrera sustatzea.

EKINTZAILETZARAKO ETA KALITATEKO ENPLEGU EGONKORRA SORTZEKO PROIEKTU BERRITZAILEAK (BFA):

Ekintzaitzaren eta kalitateko enplegu egonkorraren arloan ideia berriak, egiteko modu berriak edo metodologia berritzailea dakarten proiektuak diseinatu, garatu eta gauzatzeko diru-laguntzak.

GASTRONOMÍA 4.0 (GFA): Gastronomiaren balio-katearen arloko enpresaren transformazioa bultzatzea, teknologia berrien erabilera eta berrikuntza integrala sustatuz (produktua, zerbitzuak, kudeaketa, prozesuak, industrializazioa, eta abar).

ARABAKO ERRIOXAKO ARDOEN ETIKETAK BERRITZEKO LAGUNTZAK (AFA): Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren Kontseilu Arautzaileak onartutako ardoei buruzko ohar berriak biltzen dituzten eta merkaturatzen lagunduko duten etiketen diseinua bultzatzea.

GIZARTE-ARRETAREN INGURUKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZA: Gorabidean dauden premia sozialak eta gizarte-arretako modu berriak ezaugarritzera zuzendutako ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak egin daitezzen babestea.



3- GAITASUNAK BATERATZEA ETA LANKIDETZAN EGINDAKO IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA (I+G+B) SUSTATZEA

Eusko Jaurlaritzaren laguntza-programak³

Zeharkako programak

ELKARTEK (EGJIS): Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileek ZTBPKo espezializazio adimenduneko RIS3 arloetan industria ahalmen handia duten ikerketa-proiektuak eta oinarritzko ikerketa kolaboratiboko proiektuak egiteko babesa.

UNIBERTSITATEA + ENPRESA PROGRAMA (HS): Enpresentzat interesgarriak diren eta enpresen partehartzea duten unibertsitate pribatuetako ikerketa- proiektuak egiteko laguntzak.

GORANTZ EGITEN ARI DIREN SEKTOREETAN BERRIKUNTZA APLIKATUKO ESPEZIALIZAZIO-ARLOETAKO PROGRAMA (HS): Lanbide Heziketako ikastetxeekin elkarlanean, berrikuntzako eta ekintzaitzako proiektuak egiteko laguntzak.

Programa sektorialak

OSASUNAREN ARLOKO IKERKETAKO ETA GARAPENKO PROIEKTU

ESTRATEGIKOETARAKO LAGUNTZAK (OS): Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko agenteek garapen teknologikoko proiektuak eta oinarritzko ikerketako lankidetzako proiektuak egin ditzaten babestea, biozientzien eta osasunaren arloko RIS3 lehentasuneko alorretan: medikuntza pertsonalizatuan, gailu medikoetan, gaixotasun arraroetan eta neurozientzietan/neuroteknologian. Interes bereziko ekintza osagarriak egitea ere babesten da.

KLIMATEK (EGJIS): klima-aldaketara egokitzeko I+Gko, berrikuntzako eta erakusketako proiektuak babestea, enpresei zein Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileei zuzentzen zaizkienak.

³ EGJIS: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila; OS: Osasun Saila; HS: Hezkuntza Saila;



4- GAITASUN ZIENTIFIKOAK ETA TEKNOLOGIKOAK SORTZEA

Eusko Jaurlaritzaren laguntza-programak ⁴	Beste babes-tresna batzuk
<p><u>Oinarrizko finantzaketa-programak</u></p> <p>EMAITEK+ (EGJIS): Zentro teknologikoen eta ikerketa kooperatiboko zentroen emaitzak eta gaitasunak hobetzeko eta merkatura bideratzeko laguntzak; horretarako, I+Garen balio-kate osoan lan egingo da, eta ZTBPren espezializazio adimenduneko RIS3 arloetan etorkizuneko aukerak dituzten ezagutza berriak lortzera bideratuko da, lankidetzaz bultzatuz.</p> <p>EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN PROGRAMA-KONTRATUAK (HS): Euskal Unibertsitate Sistematik, eta lankidetzan, egindako jarduerak, “Unibertsitatea Enpresa-Gizartea”, “Bikaintasuneko ikerketa” eta “Prestakuntza eta Nazioartekotzea” arloekin lotzen direnak.</p> <p>BERC PROGRAMA (HS): Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileak babesteko laguntzak, oinarrizko ikerketako eta bikaintasuneko zentroen kategorian egiaztatutako eragileak izango dira.</p> <p><u>Beste laguntza-programa batzuk</u></p> <p>EKIZIEN (HS): BERC ikerketa-zentroen, publikoak ez diren unibertsitateetako ikerketa-egituren, ikerketa kooperatiboko zentroen eta zentro teknologikoetako ikerketa-erakundeen ekipamendu zientifikoa erosteko laguntzak.</p>	<p><u>Azpiegitura zientifikoak</u></p> <p>LINKER BIKAINASUNeko IKERKETARAKO FUNTSEZKO AZPIEGITURAK (HS): Arlo enblematikoetan eta estrategikoetan bikaintasun-ikerketa sustatzeko azpiegiturretara zuzendutako laguntza-programa.</p> <p>NEUTRONIKA ETA NEUTRINOAK (HS): Neutroien eta neutrinoen teknika bidezko ikerketaren arloko ekipamendu zientifikoan inbertsioak egiteko eta prestatzen ari diren ikertzaileak erakartzeko laguntza-programa.</p> <p>SUPERKONPUTAZIOA (HS): Euskal Autonomia Erkidegoko errendimendu handiko konputazio-zentroetan (ATLAS eta ARINA) inbertsioak egiteko eta errendimendu handiko konputazioari lotutako <i>High Performance Computing</i> eta Adimen Artifiziala arloetan prestatzen ari diren ikertzaileak erakartzeko laguntza-programa.</p> <p>TEKNOLOGIA KUANTIKOAK (HS): Gorabidean dauden teknologia kuantiko bidezko ikerketaren arloko ekipamendu zientifikoan inbertsioak egiteko eta prestatzen ari diren ikertzaileak erakartzeko laguntza-programa.</p> <p><u>Laguntza-zerbitzuak</u></p> <p>I2BASQUE: Euskal Zientzia eta Teknologia Sareko eragileentzako informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko</p>

⁴ EGJIS: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila; OS: Osasun Saila; HS: Hezkuntza Saila.



4- GAITASUN ZIENTIFIKOAK ETA TEKNOLOGIKOAK SORTZEA

AZPITEK (EGJIS): Ikerketa, garapena eta berrikuntza garatzeko eta horren emaitzak balioztatu eta erakusteko beharrezkoa den ekipamendu zientifiko-teknikoa eskuratu, instalatu eta eguneratzera zuzentzen den laguntza-programa. Emaitzen kalitatea eta haien eragin zientifiko-teknologikoa, ekonomikoa eta soziala hobetzera bideratzen da.

OINARRIZKO IKERKETAKO ETA IKERKETA APLIKATUKO PROGRAMA (HS): Oinarrizko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak.

IKERKETA TALDEAK (HS): Euskal Unibertsitate Sistemaren bikaintasuneko ikerketa-taldeen jarduerak babesteko laguntzak.

Programa sektorialak

OSASUNAREN ALORREKO IKERKETA-ETA GARAPEN-PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK, IKERKETA JARDUERA AREAGOTZEKO (OS): Osasunaren alorreko ikerketa-jarduerak sustatzeko proiektuak eta osasunaren alorreko ikerketa-jarduera areagotzeko proiektuak egin daitezten babestea. Laguntza zuzenduko zaie soilik osasunaren arloko ikerketa zentroen kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileei.

NEKAZARITZAREN, BASOGINTZAREN ETA ARRANTZA- ETA AKUIKULTURA-PRODUKTUEN SEKTOREETAN IKERKETU, GARATU, ETA BERRITZEKO LAGUNTZAK (EGJIS): Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan efizientzia handitzeko,

telekomunikazio- eta azpiegitura-euskarrien eta -zerbitzuen sarea.



4- GAITASUN ZIENTIFIKOAK ETA TEKNOLOGIKOAK SORTZEA

lehiakortasuna hobetzeko, hazkunde jasangarriari laguntzeko eta lankidetzaz sustatzeko laguntzak.

Foru Aldundietako laguntza-programak

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA SAREA (GFA): Gipuzkoan ikerketa eta garapena sustatzea, ikerketa-zentroek, zentro teknologikoek, I+G unitateek, unibertsitateek eta gainerako erakundeek egiten dituzten ikerketa- eta inbertsio-proiektuei lagunduz..



5- TALENTU ZIENTIFIKOA, TEKNOLOGIKOA ETA ENPRESARIALA KUDEATZEA

Eusko Jaurlaritzaren laguntza-programak ⁵	Beste babes-tresna batzuk
<p><u>Laguntza-programak</u></p> <p>IKERBASQUE PROGRAMA (HS): Nazioarteko erreferentziako talentua erakartzeko eta atxikitzeko programa, kategoria hauetan: berria (Fellows); aurreratua (Associate); eta erreferentziakoa (Professors).</p> <p>DOKTORE EZ DIREN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO PROGRAMA (HS): Doktore ez diren ikertzaileek doktore-tesia egitera zuzendutako ikerketa finantzatzeko laguntzak.</p> <p>IKERTZAILE DOKTOREENTZAKO HOBKUNTZARAKO DOKTORETZA ONDOKO PROGRAMA (HS): Ikertzaile doktoreen hobekuntzara zuzendutako laguntzak.</p> <p>BIKAINTEK (EGJIS): Industria-doktoretzak egiteko eta enpresetan ikertzaileak kontratatzekeo laguntzak.</p> <p>IKERMUGIKORTASUNA (HS): Ikertzaileen mugikortasunerako programa.</p> <p>EGONLABUR (HS): Ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programa aplikatzen ez den beste ikastetxe batzuetan egonaldiak egiteko laguntzak.</p> <p>IKASIKER BEKAK (HS): Euskal Unibertsitate Sistemako ikerketa-taldeekin, BERCeekin, berrikuntza sanitariorako zentroekin, ikerketa korporatiboko zentroekin eta zentro</p>	<p><u>Jakintzako azpiegiturak:</u></p> <p>UNIBERTSITATEA/ENPRESA IKASGELAK (HS): Unibertsitate-zentroetan kokatutako laborategi-ikasgelak, enpresek batera sortu eta finantzatuak, prestakuntzako eta ikerketa, garapen eta berrikuntzako jarduera bateratuak susta daitezzen.</p> <p>ENPRESA + UNIBERTSITATEA IKASGELAK (HS): RIS3 estrategiarekin bat datozen enpresetako laborategi-ikasgelak, Euskal Unibertsitate Sistemarekin lankidetzan sortuak, irakaskuntzaren eta ikerketaren arloan lankidetzaren eta prestakuntza-proiektuak gara daitezzen.</p> <p><u>Beste ekimen estrategiko batzuk</u></p> <p>STEAM EUSKADI ESTRATEGIA (HS): Hezkuntza eta prestakuntza zientifiko-teknikoa bultzatzea hezkuntza-etapa guztietan; STEMen alorreko bokazio eta asmo profesionalak inspiratzea, arreta berezia jarritz ikasleei; eta euskal herritarren artean dibulgazio eta kultura zientifikoa eta teknologikoa sustatzea.</p> <p>UNIBERTSITATE-PRESTAKUNTZA DUALA (HS): Enpresekin elkarlanean, txandakako unibertsitate-prestakuntzako eredu barnean hartzen duten graduoko eta graduondoko unibertsitate-titulazioak sustatzea, unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetzan sakonduz eta ikasleen enplegarritasuna sustatuz.</p>

⁵ EGJIS: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila; HS: Hezkuntza Saila.



5- TALENTU ZIENTIFIKOA, TEKNOLOGIKOA ETA ENPRESARIALA KUDEATZEA

teknologikoekin elkarlanean aritzeko beka, ikerketa- lanetan hasi nahi duten unibertsitateko ikasleentzat.

NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURAKO SEKTOREAREN ARLO ZIENTIFIKO, TEKNOLOGIKO ETA ENPRESARIALETAKO IKERTZAILE ETA TEKNOLOGOEN PRESTAKUNTZARAKO LAGUNTZAK (EGJIS): Doktoretza-tesiak eginez edo ikerketa, garapen teknologiko eta berrikuntzako proiektu bat garatuz, gazte tituludunen kualifikazioa eta espezializazioa erraztea.

Foru Aldundien laguntza-programak

TALENTUA IKASKUNTZA (GFA): Pertsonen talentua eta gaitasunak sustatzea, enpresetan talentua ezartzeko prozesuak bultzatzen dituzten proiektuetan lagunduz, baita ikerketa-proiektuetan, tresnen garapenean, metodologietan eta abar ere.

GIPUZKOA FELLOWS (GFA): Nazioartean garrantzia duten ikerketa-taldeetan doktoratu ondoko prestakuntza egin duten ikertzaileak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko Gipuzkoako zentroetan sartzeko babesa.

HOBEKUNTZA PROFESIONALA (BFA): Graduatu ondoko gazteen bikaintasuneko prestakuntza babestea, nazioarteko zentro entzutetsuetan hobekuntza profesionaleko ikastaroak eginez, haien prestakuntza akademikoa osatze aldera eta Bizkaiko enpresetan, unibertsitateetan edo ikerketa- zentroetan integratzeko aukerak hobetze aldera.

INGURUMENARI BURUZKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZAKO PROIEKTUETARAKO BEKAK (GFA): Ingurumenaren arloko zenbait gairi buruzko ikerketa-proiektuetarako beka ematea —hondakinen prebentzioari eta birziklatzeari buruzkoak, energia-jasangarritasuna eta klima-aldaketari buruzkoak, eta klima-aldaketaren arloko informazioari eta komunikazioari buruzkoak—.

BIZKAIA BBK PROGRAMA (BFA): Unibertsitateko gazte tituludunek atzerriko unibertsitateetan prestakuntza espezializatua egiteko beka, ondoren Bizkaiko punta-puntako enpresa batean kontratatzearekin batera.



6- IKERKETA, GARAPEN ETA BERRIKUNTZAKO (I+G+b) SISTEMA IREKITZEA ETA NAZIOARTEKOTZEA

Eusko Jaurlaritzaren laguntza-programak ⁶	Beste babes tresna batzuk
<p><u>Laguntza-programak</u></p> <p>ERA-NETS (Hazitek bidez) (EGJIS): Europar Batasunak <i>Horizonte 2020</i> programaren bidez sustatzen dituen sare horiek ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+b) finantzatzeko erakunde publikoen nazioz gaindiko sareak dira, eta horien helburua da nazioko eta eskualdeetako ikerketa-programak koordinatzea, baita ikerketa, garapen teknologiko eta berrikuntzako nazioz gaindiko proiektuak bultzatzeko deialdi bateratuak prestatu eta egikaritzea. Euskal Autonomia Erkidegoak gaur egun sare hauetan parte hartzen du: Manunet, M-Eranet, SuSAN...</p> <p>EUROPAKO IKERKETAKO TRAKZIO-PROIEKTUEN PROGRAMA (Lehendakaritza): Europako Ikerketako Trakzio Proiektuak aurkezteko laguntzak, <i>Horizonte 2020</i> Programaren bigarren faseko deialdiaren barruan eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek gidatuta.</p> <p><u>Beste batzuk</u></p> <p>IKERBILERAK (HS): Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren ikerketa zientifikoaren arloko biltzar eta bilera presentzialak antolatzeko laguntzak.</p>	<p><u>Laguntza-zerbitzuak</u></p> <p>EEN -EUROPE ENTERPRISE NETWORK- (EGJIS eta beste batzuk): Enpresei eta, bereziki, enpresa txiki eta ertainei babesa eta aholkularitza emateko Europako Batzordeak sustatutako sarea, betiere Europako negozio-politikekin eta aukerekin zerikusia duten arloetan. Era berean, sare horren bidez, teknologia-transferentziako prozesuetan lagunduko da, baita ikerketa, garapen eta berrikuntza (I+G+b) finantzatzeko Europako programetara sartzen ere.</p> <p>EUSKAMPUS- NAZIOARTEKO BIKAIN TASUN CAMPUSA (UPV/EHU, Euskampus eta hainbat): Euskal Autonomia Erkidegoko eragileen artean (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko erakundeen, enpresen, gizarte-eragileen, eta abarren artean), eta eragile horien eta nazioarteko eragileen artean, lankidetzak sustatzeko eta bideratzeko azpiegitura, betiere goimailako prestakuntzaren, ikerketaren, balorizazioaren eta jakintza-transferentziaren arloetan eta nazioarteko testuinguruan.</p> <p><u>Jakintzako azpiegiturak</u></p> <p>MUGAZ HARAINDIKO LANKIDETZA-LABORATEGIAK (UPV/EHU, Euskampus eta hainbat): Mugaz haraindiko ikerketa-komunitateak sor daitezen sustatzea, berariazko alor bateko ikerketa-proiektuen bidez eta emaitza zientifikoaren balio erantsia areagotzeko helburuarekin, baita Europar Batasunean eta nazioartean</p>



baterako ikerketaren ikusgarritasuna areagotzeko ere.

⁶ EGJIS: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila; HS: Hezkuntza Saila.